



# KARMEN UGARTEMENDIA ALBERDI

JONE IDIAZABAL

**Z**ENBAITZUK izen hau irakurri ondoren Karmen nor ote den galdetuko diezue zeuen buruei. Horra ba erantzuna: ia 45 urtez D. Roberto apezarekin bizi izan zena hain zuzen ere. 1895-ean kasualitatez Elizondon jaio zen emakume honek Abenduaren 30-ean 94 urte beteko ditu. Hainbeste urteetan gure herriarekin lotura eduki duen emakume honen bizitza piska bat ezagutzea denontzat interesgarri delakoan, zenbait gauza kontatzera noakizue.

Bere gazte denboran hortik zehar ibilia da, bidaiatzea hain erraza ez zen garai batean gainera. Beste hainbeste urte berriz Errenteria-tik mugitu gabe pasa ditu. Nahiz eta hemen urte asko igaro, ez ditu lagun asko egin, kalera irtetea ez zi-

tzaiola gustatzen dio, baina benetakoa arrazoia denbora falta izan dela esango nuke nik. Ez da batere arritzekoa, 25.000 biztanle zituen herriko parroki bakarrekoko bulegoa beraien etxean bait zegoen eta lan asko suertatzen bait zitzaion. Konpara ezazue, gaur egun 55 bat mila biztanlerentzat 8 edo 9 parroki daude.

Gaisorik sekula egon ez den emakume honek oraindik ere nolako memoria daukan ikustea mirestekoa da. Sukaldari ona eta jale ona bada ere aurpegia leun-leuna izaten jarraitzen du. D. Jose Migel Barandiaran gogoratu arazi dit, eta ziur naiz gaur egun erabiltzen ditugun «hidratante» horiek ez ditula inoiz ikusi ere egin. Nahiko baldar dago, 10 urte luze badira etxetik ateratzen ez dela, eta batetik bestera ibiltzeko karrito antzeko tramankulu batez baliatu behar izaten du.

Betidanik Erreparadora monjekin amastade handia izan du, gau eskola, iganderoko bilerak eta elkarbizitzeak zirela medio. Antzerkia ere egiten zuten elkarrekin. Etzuen asko antzestu nahi izaten eta paper txikiak eskatu ohi zituen; behin argazkilari papera egin omen zuen. Hemengo Erreparadora zen Maria de la Virgen Ventura Bartzelonara destinataua izan zen. Han akolito zen batek neskame bat nahi omen zuen, eta Maria de la Virgen Venturak Karmeni deitu zion. Horrela ba, lur haietara joan eta 10 urte egin zituen Sarria-n, Perez Zamanillo Filipinas-eko Gobernadore izandakoaren etxean neskame. Etxeko lanetarako, euskaldunak izugarriko fama omen zuten. Pentsa noraino, 10 seme alaba zituen gizon honek bere zerbitzuan zituen 12-tik 10 euskaldunak ziren. Zoritarrez ama gaisotu eta laguntzera etorri behar izan zuen Filipinas-eko sendi hura utziz.

Frantziskar baten bidez Aya-ko D. Rufino Aldabalde Treku-rekin hasi zen apaiz zerbitzuan, honela, bere amari gustatzen ez zitzaion gauza bat egiten hasi zen, apezekin lan egiten alegia. Ez zen edozein apezekin hasi. D. Rufino 1930-etik 1945-era bitartean Gasteizko elizbarruti-ko apez garrantzitsuenetako bat zen. «Misioneras Evangélicas»-en fundatzailea ere izan zen.

Guda zibila. Areea-n bizi zirela hasi zen, 6-retako mezetara zijoaztela, aurrez-aurre dagoen Portugaleten, bomba batzuk bota zituzten Campsa-ko depositeoak lehertuz. Bazter guztiak nahastu ziren eta D. Rufinok Frantziara joan behar izan zuen. Karmenek ere beste aldera ihes egin zuen, Portugalete-tik irten zen azken itsasuntzian. Hiru egun egin zituzten itsasoan. Itsasuntziko Kapitainak ez zekien erderaz hitz egiten, eta Karmenek frantsesa zekienez, itzultzaile bezela aritu zen bidaiari. Frankisten «Cervera» itsasuntzia inguratu zitzairen, baina emakume eta haurrak zeramatatela ikusterakoan alde egin zuen. Frantzian pasa zuen denbora eskasa ez omen zen oso atsegina izan. Beste aldetik hona itzuli zenean, muga kamioi batean pasa zuen, 3 emakume eta gizaseme batzukin, botila artean, bidai desatsegin samarra suertatuz. Bilbo ordurako frankisten eskuetan zegoen. Areea oso berandu iritsi ziren, hildakoek botatzen zuten kiratsa usainduz. Etxeko txirrina behin eta berriz jo eta kasorik ez zioten egin. Ondean zegoen ogitegi bateko atea bere indar guztiarekin jo ondoren erantzun zuten ea nor zen, eta Karmen zela jakiterakoan barrura sartzen utzi zioten, gau hartan, bertan lo egiteko esanaz.

1937-ko Abenduan, D. Rufino Bergarako apezgaitegira joan zen zuzendari bezala eta Karmenen behar gehiagorik ez zuen izan. Apez batetik bestera pasatuz, Lizartzako D. Joakin Goikoetxeandia-rekin hasi zen lanean.

1938-an, D. Joakinek Ortuella-ra trasladoa eskatu zuen, eta han bizi izan ziren 1942-rarte. Bertako meategiko langileak ezagutu nahi omen zituen eta.

1943-an D. Joakin Gasteiza joan zen D. Rufinoren ordean, eta berriro Karmen lanik gabe geratu zen. Beraien laguna zen, D. Roberto Agirre, 1941-eko Martxoaz geroztik, Errenterian zegoen apez, eta etxekoandre baten laguntza behar zuen. D. Joakinek, Karmen D. Robertori eskeini zion eta horrela 1943-ko Urriaren 12-an Karmen gure herrira etorri zen.

Bere bizitza mugitua edo bidaiatsua hemen bukatu zen.

Karmenek Erreterria ezagutzen zuen, noski, umetan Pasaiain bizi izan bait zen. Bere aitak, pelotan jolastera etortzen zenean, ekartzen zuen tranbian. Festa haundi bat, luxu bat izaten omen zen Pasaiatik Erreterriara etortzea. D. Roberto eta D. Felipe Barandiaran hasieran Telleri-alden eta gero Kapitain-enea kalean, elkarrekin bizi ziren. 1945-ean, 1904-ean etorria zen D. Francisco Ayestarán hil zen, eliz nagusiko apez etxea libre geratuz. Urte horretan aldatu ziren hirurak etxebizitza honetara, gaur egun Karmen bizi den etxera alegia.

D. Roberto eta D. Felipe 1941-etik 1947-ra batera egon ziren.

Guda ondoren, apezgaitegiko denak markaturik zeuden. Zenbait apez apezgaitegitik bidaliak izan ziren euskaldun eta abertzale zirelako. D. Jose Migel Barandiaran eta D. Manuel Lekuona adibidez, euskal kultura eta euskararen alde lan egiteagatik, kanpora bota zituzten. D. Joakin herriz emakume karlista eta monarkiarrak babestu zuten. Euskal kleroa gudan gertatutakoaren errudun omen zen, ez ziren politikoak, baina bai euskaldunak.

D. Roberto eta D. Felipe euskal gaztediarekin lanean hasi zirenean, karlista zahar eta katoliko eskubiar batzuk, berriro susmo txarrak berpiztu zituzten. Ez zituzten begi bistatik kentzen, egoera politikoa larria zen, denak elkar ezagutzen zuten, eta salaketen beldur bizi ziren. Adibidez, Espainiako zaindaria den Pilar-ko Amabirjñari kasorik egiten ez ziolako, Espainiako banderaz egindako mantu bat jarri nahi izan zioten. Behin, D. Robertok parroko apez guztiei deitu eta bati bizpahiru hitz esan omen zizkion susmo txar guztiei buruz.

Frankismo urteetan Vatikanokoek euskal apezaren egoera jakin nahi izaten zutenean, D. Robertogana jotzen zuten askotan, adibidez, 1962-tik 1975-era Riberi Monsignorea eta Dadaglio Nuntzioa berarekin harremanetan egon ziren. Transizio garaian ere konfidantzazko gizona zen, pertsona goratu bezala kontsultak egiten zizkiotelarik.

Karmenek D. Roberto bitartez pertsona garrantzitsu asko ezagutu ditu, San Juango Laboa Monsignorea, Panamako Nuntzioa, Sukia Kardenala, apeza zenean, D. Robertoren ikasle izan bait zen, e.a.

Baina D. Robertok ez zituen harremanak goi mailakoekin bakarrik izan, behartsu asko lagundu zuen isilpean, esku-biko eskuak ezkerak egiten zuena jakin gabe, oso esku zabaldua zuen.

Karmen ia 45 urtez D. Robertoren zerbitzuan egon da, makina bat lan isil egina da. Baina etxeko lanez gain, elizako lanetan ere aritua da. Amada Aramendi-k eta Juanita Sainzek urteetan aldare nagusia apaintzen jardun zuten. Amadak utzi zuenean, Karmenek laguntzen zion Juanitari, eta Juanitak utzi beharra izan zuenean, Karmenek bakarrik jarraitu zuen lan horrekin.

D. Robertorekin bizitza erraza omen zen, nortasun gogorrekoa, baina bihotz handiko gizona bait zen. Karmeni ez zion lan askorik ematen, bizitza latza zeraman eta ala guztiz ere dena ondo eta ona bilatzen zuen, eskerronekoa zen. Purrustaren bat egiten bazion, barkazio eske zetorkion berehala.

D. Roberto Karmen baino 10 urte gazteagoa zen, baina bera baino lehenago hil nahi zuen. Gai honi buruz asko hitz egiten omen zuten. Karmenek noski D. Robertoren nahi hau beteko zen esperantza zuen, eta halaxe izan da.

Karmenek aldareko beiraduretako lehiotxo batetik entzuten zuen meza, handik eliza ikusten baita. Lehen, telebista gustatzen omen zitzaion baina D. Roberto hil ondoren, tristura besterik ez omen dio sortzen, eta gaur egun iganderoko meza ikusteko besterik ez du pizten.

Nola ahala, Karmenek oraindik duen umore onetik denok piska bat bagendu, gazteak barne, ez litzaiguke batere gaizki etorriko. Eta ez hori bakarrik, bere bizitzaren aberasunaren itzala ere eskertuko luke gaurko gizarteak, dudarik gabe.